BAGILLA
6
Larunbata

Bilbao, 1936

EUZKADI

ARPIDE-SANEURIJA

Bilbao'kua	9,00	diko. iru illez
Bilbao'atazkua ...	11,25	" "
Idazki-itunmena ...	62,00	" urtez
Atzerijetakuak ...	112,50	" "

Beldayen itunduba

XXIV urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.315 zenbakija

Gayak

"TXIRITA IL DA"

Arañegungo "El Dia" Donostia'ko izparingijak ekarri euskun izpar baltza da au. Beraz, "Txirita" il da (G. B.).

Izpar baltz onegaz batera, "El Dia" izparingijak, Gipuzkoa'n eta Euzkadi gustijan be ospetsuba ixan zan bertsolarijaren argazkija argitaldu euskun.

"El Dia" izparingijak "Txirita" mate eban, bata Euzkadi gustijak be. Arañegun "El Dia,'n, eta atzo EUZKADI izparingi onetan argitaldu ixan dan "Txirita" zanaren argazkija, izparingi bi onein irakurle euzkotarak ikusi ixan dabenlan, euroen otoyak euzko-bertsolari entzutetsu arentzat ixango zirala uste dogu, bijotzez mate ixan dogunez ganera, otoi-zor gayakoz ixan be.ta.

Urtiak dira, ta askotxu ixan be, "Txirita.,'renak zirala-ta bertso-papel bat lenengoz irakurri ixan nebala.

Ondiño gastetxuba nintzan, euzko-gauztzaz-eta ezertxu be enekijana. "Bertso-papel" aretako "bertso beriak", aldi aretan buru argija ixan be-ta, beriala ikasi nebazan.

Abertzale erara egifiko bertsuak ziran, Gernika'ko zugatza ta "Fueruak" gaitzat artuta biribildurikuak.

Gastaruan, bertso-papeleko bertso gustijak buruz ikasi nebazan - aren, orain buruko uliak zuritzen asi yakuzanian, eztakit curetatik bat be okerik barik atonduko neuken. Ezetz uste dot. Osuan atonduko ezpa.dot be, baña, antza emongo dautsotala uste dot orratiño. Ta zek urtetan deustan:

"¡Viva! euzkeldun lau probintziak,
¡Viva! cantabristarak,
¡Viva! Bizkaya, Gipuzkoa'kin
Araba eta Naparak.
¡Viva! kortian gure fabore
Dauden ministro bakarak;
Beste gauzarik eztogu ezkatzen,
¡Viva! lengo Fuero Zarak."

Bertso au, "Txirita" bertsolari ospetsubarena da, ta ene gastaruan gogotsuen abesatuten nebana be bai.

Ba.liteke leforen baten itzen batzuk aldatuta eukitia. Bertsolarijaren oldozmena, baña, ezertxu be aldatu barik dagualako susmua dot.

Bertso oneten erderakada batzuk ba-dagoz. Erderakada ta gusti be, baña, abertzalia da, euzko-olerkarija besterik ixan be exin lefeke-ta.

"Txirita" zanaren bertsodun bertso-papel a eskubetaratu nebanian, "Txirita" ezagutu nebala esan leike. Ordutik aurera, gipuzkoar bertsolarijen ospia gorengo malan eruaten eban bertsolarija, "Txirita" zala uste ixaten neban, ba, beste askoreh eretxija be orixe ixaten zan-eta.

Eta "Txirita.,'ri entzuteko egarija sortuten asi yatan. Baña nire egarija asetu orduko, urtiak-urte igazi ziran.

Egun baten, orratiño, ta usterik gitxijen neban egunian ain zuzen be, zeregin batek eruanda, Donostia'n aurkitu nintzan.

Egun a, Iñaki deunaren jaya zan. Beraz, Donostia'n aurkitzeko baño, Azpeiti'ko Loyola-ingurubetan egurastuteko-ta, egokijagua zan.

Nire zeregiña, baña, Donostia'n eguan, eta araxe juan nintzan.

Donostia'tik, "Loyola" auzunia, urbil-samar egiten da. Auzune aretan, jaya zala esan euskuben; bertsolarijak abestuko ebela, ta abar. Eta Loyola-auzunian abestuko eben bertsolarijen artian, "Txirita" ospetsubaren ixena entzun neban.

Otoz - otuan entzumeneratu yatan ixen arek, gastaruan ikasi ixan nebazan bertsuen gomutia ekarri eusten, eta bertso arein egiliari entzuteko antziña nabaitzen neban egarija barijen-hari nabatu.

Eta Loyola azunerantz igitu nintzan, ene bertso.egarija asetuko eustan bertso-itufira.

Oneik lau ixan ziran. Eta lau bertsolarijak, txorifiuak kayoletatik lez, levo banatatik burubak agertu ebezan, eta bertsuak-bertso abestuten iñardu.

Ziri-bertsuak abestuten ebezan, entzuliei bafe eregitekuak.

Ufengorik-ufengo, batak baño bestiak ziri aundijaguak bata - bestiari ezarten eragoyoen.

Ofoki, Erauskin eta Tolosa ixan ziran zirala uste dot "Txirita,,'rekin laukotxa osotuten ebenak.

Oloki'k ziri-bertso bafegafi bat jaurti eban. Erauskin'ek, beste ziri ta erdiko batak, erantzun eutsan.

Bitartian, Tolosa'k, ziri-bertsuak asmetan zuretarikua ixan be.ta, iru ziriko bat jaurti eban, "Txirita,,'k azkenian, lau zirigaz osoturiko bertso zofotz bataz danak zirikatuta lagatoko.

Euren ziri-bertsuak bide zirala, lau bertsolari arelk, ¡amaikatxu bafe eragin eben! Bertso-iñarkun aretatik entzuliak pozik urten ziran. Bata ni be, gastaruan softuriko bertso-egarija asetuteko iturija, antxe idoro nebala-ta.

卐 卐 卐

"Txirita" zanaren bertsuak, lenengoz eta azkenengoz be, ordubantxe entzun nebazan.

Ordutik ona, bafiz, urtetxubak igazi dira: amaf-amabi inguru.

Eta andik urte batzubetara, Tolosa bertsolari jatorra zanaren il-izpara ekarri eustien. ¡Gaxua! (G. B.).

Orain, bafiz, beste au ekafi dauskube: "Txirita" zanaren il-izpara.

"Txirita" ospetsubaren ixena, bertso-papelian ikasi neban. Eta beren bertsuak, Euzkadi euzkotaren abefijari abestuteko ixan ziran.

Beraz, "Txirita", ikusten danentz, Euzkadi'ri abestuten ludiratu zan, eta Euzkadi'ri abestuten beste ludiratu be. Begi-aurian daukaguzan izpafingijak damoskuben izpara, auxe da, ba: Abefi-Egunian Goizueta'ko jayetan abestuten iñardubala gexotu zala, ta gexo arek urengo egunian donokira eruan ebala.

¡Gaxo.gaxua! Goyan bego, ba. Beraz, Jeun-Goikua eta Lagi-Zafa'ri abestuten il danaren gogo-aldez, otoi, zuk, irakurle, arelk lengo bertsuak, otoi oneik eurenak dabez-eta.

URIBITARTE'TAR IBON.

Autuka-mautuka

Tefiblia

Ofeik euzkotaf ofeik, basatijak ixateko Araudija eskatzen dabe. España edefaren semiakin bixitia etxake atsegiten. Izpafingi batzuten auxe irakurí dogu. ¡Tirok. ba! Gero urengo lefo edo ilfean beste au ikusi dogu:

Almonte'ko ufijan "Tefiblia" eritxonak izpafingija irakurí erolan; Sevilla'ko espetxeko buru zanari bixitzea gaizkifiak kendu dautsoe. Eta "Tefiblia,,'ren bafuban aldendearen afotasuna zutundu zan. Almonte'n olakorik ezta izaoten, neronek bat egin biaf-ixango dot.

Esan eta egin. Casino'ko kontserjiari, Cabrera eritxonari aiztokada galanta emonaz, bixitzea kendu dautso".

¿Eta ofeikaz bat-egifia euki gura gatube? Batzokijetako kontserje gaxuak txarto legokez!

Aginduba bat, emo. na bi...

Gipuzkoa'ko komunis.tak baxen euzkeltzalegorik ez ei-dago, ilafgijan bertan be. (Ilargi-ko euzkeltzaliak asko ete-dira? Orixe jakitifaren zeozer emongo geunke).

Komunisten itzaldijetara zuaz: "Abeftzale nafu ofeik baño matiago euzkera dogu. Geuk Euzkadi azkatuko dogu".

Gipuzkoa'ko aldunetxian dagozan aldunak itaundu begije. An, be, komunisteren batzu bat ba .dira, ba. Aldunetxeko mofoi ¡xateko euzkerea biafekua zala eijiben esan ala?

Baña orduba etofi danian, pofot-egin dabe. (Gorantzijak Lenin'i Euzkadi'rantza noiz etofiko dan, preguntau egi jozube).

¡Ori mutila!

Thoma Lidowe ori dok gixona! London'eko epaikarijak estapa bat egin daulako espetxera juateko esan dautse.

—¿Zer egin dok, ba?

—Ezerez. Amaika urte onetan bere buruba ll gura-ixan dau. Befogeta lau bidaf asmo txaf ori egin dau, baña norbafek arin lagunduko eutson tokijan. Osagifiak-eta juaten yakozanian, negafka esaten eutsoen: "Itxi nagixube, dirurik eztaukot eta neure buruba erail biaf dot".

Afpide baten bidez gustija atonduten zan. ¡Gure mutilaren poza!

—¡Ene bada! Lotsafen oraingo ilgo nintzan.

—Orixe epa! - mayak, be, esan eutson, baña Lidowe'k erantzun dautse iñoiz be etxakola otu olakorik. ¡Jakin ba -eban!

Aldunok!

España'ko aldunak dira zintzuak! Alvarez Angulo deritxona aringa etofan. Ene belu nator gaufko batzafera. Gafantzi andikua el-da, ostera. Atera eldu zanian atezafiari itaundu eutson:

—Zer bafi dago of bafu-aldian?

—Ezerez gixona. Biguri'k "Trincheron" .etzaz; Cervera'k "Cacateron,,'etzaz; Estelrich 'ek "Esclepios" eta "Acropolis"-etzaz; Llopis'ok "Zeuz"-etzaz itz .egin daroe.

Eta aldun gaxua, ixen onsik entzuterakuan, leng bidez aldendu zan. Astija galduteko gogorik ezeukon.

Salabefia

Idazle onen txotxolokerijak begiko yakuz. Pulpitutik dingilisika dagonaren antzean itz.egiten dau. Euzko-Araudijari ziztada batzuk safitu dautsoz. Eta azken aldian dirausku: "Quieren remedar a la gran nacionalidad que envidian".

Egi galanta! Euzko-Araudija gura geunke. Euzkadi onetan, be, safi-safi ikusi dalguzan Yecla, Yeste, Ecija, Amonte-eta beste tokijetan jazoten diranak! "Gran nacionalidad "batek iga.lijak...

卐 卐 卐

Euzkeldunak ikastola Nagusi'rik eztaukogulako Valladolid'era juan zan ikasle euzkotaf batek "Unibersidadea" nun zan itaundu eutson txifiel bati.

—Ori edozein astok yakik eranizun eutsan zurtzat eguan txifielak euzkotaf goxaren batekin izketan egualakuan.

—Ofexegatik itaundu. ten dautzut zeuri, ba, erantzun eutsen geure mutilak.

Iruxo, Getari'n

Datofen igandeako E. A. B. gogof ari da lanian beren jaiak izan dedin apaifiak. Beñere baño geiago ikusten da Batzokia'n bazkidea, beñere baño beruago Jel alde lana egifiez. Ederki Emakume bikafiak, zuen jaiak eta zuen abefien maitasunak pixtuko ditu zuen anaien abertzaletasuna.

Ausoko efietan ere gogo aundia dago aditzeko Iruxo jaunen itza. Baita ere Sistiaga andereñoa.

Getariafak! erakutsi zuen maitasuna Iruxo'ri berak egitendu alegifia gure efiaren alde ta.

Askizu.

"TXIRRITA"

"Txirita" il da. Bertsolariak negaf dagie lagun zafaren oroiz; euzkeldunk geyenok itunez aftu dogu izpaf itzaloi.

Bertsolaria efiaren adizkide ta maitale da beti; efia bertsolarien atzetik pozez ta atsegifiez ibilten da; euzkel-ixatearen mamin-bero bai'da bertsolaria.

Bertsolaria nun, an ixaten da euzkelduna. Bere biotza ikutu ta leratuten bertsolariak baño zindo ta zoliago iñok eztaki; ezta biotz ori erakafi ta menperatuten be. Jo bestela 1802'gafenerantz. An ikusiko doguz Amasa'ko enparantzan bost milla euzkeldun Xabalotegi eta Amezketa'ko Zabala'ren sayaketa gogangafia entzuten. Oaf Ipafagife'ri. "Gernika'ko arbola,,'ren abesiariak sentimenturik ba'eban efi osua bere onduan alkartu ta biotzean joteko. Eta euzkeldunak baretuko ba'ziran espetxean saftu biaf bertsolaria Madrid'eko Gobernuak. Ordutik "Zibiliak esan naute" bertsoak. Oaf baita Otaño'taf Pelo Mari'ri. Argentina'rako itxasontzia artzian eundaka euzkeldun Pasai'ko portuan bere azkenengo bertsuak entzuteko gafetan. Eta urte onetan berian miiaka lagun Donosti'ko Victoria Eugenia antzokian bertsolariak txalotuten. Bertsolaria euzko-efiaren biotza bai'da; euzko-ixate ber-bera.

Gauf efia itun dago. Bertsolaria il da. Udabafiko goiz baten, euzkotafok Abefi-Eguna ospatuten gendula, abefia goratuteko zan Goizueta baserri alayan. Antxen eriotz-miñak jo ta gol-bidean saftu eban. Ofelaxe da bertsolarien bixia. Kantuz jayo ta kantuz il. Mendiage koplakarf sonatuaren bertsuok gogora yatorkuz:

Kantuz egifiez gero, munduan sortzia
Kantuz egin biarko dut, ene ustez, iltzia...

Ofelaxe "Txirita" bertsolari gaxuak. Goyan bego!

Bertsolariak zolifasunik eta esakerako gatzik ba'dabe. "Txirita" etzan motela onetan. Bere bertsoak baferik eragiten eutsen entzuliei, baita edenik irauli be bertsolari arerioen biotzetan.

Bere bertsoak piper-miñez igortziten ondo ekian, eta adafa joten etzan tentel. Ofelaxe ixan biaf bai'dau bertsolariak. Zofotz eta zoli gauf, alai ta ugari biyar; pipertsu ta zirikalari emen, koipetsu ta gozo an; samuf ta leratsu ba'zutan, sendo ta gizon bestetan... Eta "Txirita,,'k bertsolarien eskola ori onde ekian. Bere bertso berlak amaikatxu bafe eragin dabe, baita jolas-ate ugari takо arek?

Egun batian astuarekin
abiyatu zan etxetik,
lepo gafian palakatuaz
—maite zuen biyotzetik—,
ipurdi-pian zataraekin
ez ebakitzeagatik.
Ba'zijuan ta apaiz jaun bate.
afapatu du atzetik.

Buria egiten asi zitzayon
gure sazerdote jauna:
Jesus! Pernando, au da lujua
zure astuak daukana!
Tela oberik ifun bilatzen
izango da naiko lana;
nik ere pozik artuko nuke...
Zenbatian dago kana?

Sazerdotiak itz ori esan,
Pernando'k buelta urena;
eskuarekin asto zipotza
altxatu ziyon aurena,
esanaz: —Jauna, or dago dena
tela jeneru orena;
bertan ederki ikusiko du,
saftu liteke bafena.

Donosti'n gifian aurtengo bertsolari sayaketan. An ikusi gendun antzezteklan patxada-patxadan jarita, makila bi eskuetan ebazala ilurogeta-amabost urtedun mutilzaf traketz gotor-a, bertsolari gaztiekaz leyan. Bai zindo jokatu be. Txalorik geyenak berak jaso ebazan, baita baferik ugarien eragin be.

Bigafen sayoan zan. Bertsolariak gudeatzaz jarduteko agindua aftu ebes mai-burutik. Eta asi ziran ekiten, batzuek gudearen kalteak agertzen, besteak negafti, are bakeari otoika. "Txirita" zan azkenengo. Zer esango ete? Entzuleak adi, bera ifibafetsu.

Zenbat efezo egin dei
nere denboran elizan
ta pozik nago ikusirikan
pakisn nola gabiltzan.
Ni naizen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan,
semeak gefa ez yoategaitik
mutilzaf gelditu nitzan.

Ateraldi onek sortu eban bafe-algarea etzan otsekoa.

Bere urtiak-afen gordin ta zoriontsu ekiten jakin eban egun aretan. Eta lenengo saria beretzat.

Baña bere bizitzan ziririk sartu ba'eban eta adafik jo, berak be entzun biaf ixan zifun beriak eta bi. Betiko lelua: esaten dabenak entzun biaf. Eta bertsolari aipatu baten esanak etxakozan makalak ixan:

Zuzen eraman naf det
asi dan ariya;
"Txirita", ba'daukazu
ofen premiya.
Andriak eginda jatea
derala ogiya...
galzto txaf enbustero
gezuf-kontariya!
zure memoriya
ezta ugariya,
talentu eriya,
korputza nagiya;
efespeto gutxiko
bertsolariya.

Nori esango ta "Txirita,,'ri? Erantzuna etzan epela ixan. Esan ba eban esan damutuko yakon miña aldiz.

Onelaxe da bertsolaria. Beti esaten ta entzuten. Beti zirika. Baña beti adiskide.

"Txirita" bertsolari aipatu ta saritua il yaku.

Eta bere eriotzean kantu arifiez lagundu dautsagu. Gorago aitatutako Mendiage bertsolariaren esana bete dogu:

Kantuz egortz nazate iltzen naizanean,
kantuz ene lagunak arturik aldian,
kantuz ariko dira ni lurian sartzian.
Kantuz franko utziko diotet munduan,
kantuz egin dezaten oroitzian.

ABETETA.

ERRIJETATIK

ISASONDO

ABERI-EGUNA.—Aurez iragafi bezela, Goteun Etorkunde egunez ospatu genduen egun aberkoi-ori.

Goizean suziriak, 10'n meza nagusia bazkide talde polita bildurik.

Jaupa edo meza ondoren, Arsuaga'taf Eustaki ta Aramendi'taf Joseba'k, Tolosa'taf Mikel ta Landa'taf Kepa'ri, jokaldi gogofa izan zuten ta lenengoak irabazi.

Atsaldeko 4'n, aizkora jokua. Zubeldia'taf Jakinde, Ioya, Lasa'taf Bitor'en aurka, 35'na ontzako trunkoak zifiek lenago ebaki. Azkenekoa irabazle gelditurik.

Ondoren eusko-eromeria, eta tarietan bertsolariak, "Zepai", "Txapel" ta "Artxanberi", iru bertsolari ospatsu abek, oste guztia aua txabal-txaba' eginda erari begira eduki zuten, eta eren lanaren ordaintzat makifiabat txalo entzu-ere bai.

Euzko-eromeria bukatu zanean, aparia Euzko-Batzokian, bazkide asko bildu ziraden, apal ostean-ere bertsolariak zayo edefa eginzuten.

Aberia'ren emaitzarako egun guztian maya jafia egonduzan, txindia poliki bildu-ere bai. Bañan geigo bildu beartzan, Aberia maite degula diyogu. eta onek gure laguntza eskatzen duan garaian, egun bateko irabazia eskatzea diguneun, uzkur egin, izan-eremanbear-ori gafatsa izaten da.

Ernani'n iltzan Aranburu'ren aldez Batzokia'r irikizan afpideak ara zer txindi emanduan.

Euzko-Batzokiak, 10 laurleko: Emaku Abertzale-Batza'k 10; Ongile batek, 0,50; B. Jauregi'taf Peli'k, 0,50; Landa'taf Kepa'k, 1; Muxika'taf Nikola'k, 2; Izurkiza'taf Joseba Iñaki'k, 1; Garmendia'taf Pantzeska Miren'k, 1; Martinez eta Lasa'taf Koldobika'k (urtekoa), 7; Lasa'taf Joseba, 0,50; Aranburu'taf Luken'k, 2; Garmendia'taf Jon'k, 1; Aramendi'taf Joseba'k, 1; Jauregi'taf Joseba'k, 1; Itufioz'taf Jon Batista'k, 0,50; Salegi'taf Augustin'k, 1; Sarasola'taf Joseba Augustin'k, 0,50 Sodupe'taf Andoni'k, 0,50; Lafiafiaga'taf Margarite'k, 1; P. Mendiguren'dar Pilare'k, 1: Saiz'taf Ilare'k, 0,50; Sarasola'taf Jon'k (urtekoa), 7; Gorospe'taf Aniketa'k, 1; B. Arsuaga'taf Eustaki'k, 1: Lete'taf Jon Mirena'k, 1; Lete'taf Todor'k, 1; Maiza'taf Koldobika'k, 1; Lete'taf Epipane'k, 1; Izurkiza'taf Joseba Goizon'k, 2; Jauregi'taf Joseba'k, 1; Tolosa'taf Mikel'k, 1; Sarasola'taf Manuel'k, 5.

Gustira, 66,50 laurleko.

OKERA ZUZENDU.—Orain ufengo idazkian esaten nuan, uraz arustik, denbora alditxobat bere txokoan ta bere aendian ondoan egitera etori zala Muxika eta Martinez'taf Nikola, eta esanai nuen Muxika eta Martinez'taf Joseba Imanol (Jose Manuel). Auxenda-ba ornin etoria. Uste gabez egindako utzegitea barkatu.

Mutrunendo.

IXURTZA

Beñola'ko "Artzaña" idazle begikua aldendu zanetik ona, efitxu ontatik iñok ezertxu be eziabela idatzi ikusita, aufearantzian bertatik nozipein zer edo zer idazteko asmu onuratsua gauf gzitu dot. Emen nayatortzu ba, irekurle. Durango ta Mañari efijen bifartian aurkitzen dan efitxu politeko izparak "Lauzeta" jaunaren baimenaz zuri zintzo emoten.

ABERI-EGUNA.—Geure Aberija'ren eguna, emen be andikiro ospatu gendun. Goxian, bederatzijetan, Aberi-aldez meza bat emon zan. Gero, meza -ostian, ezpatadantzia ta aufeskua dantzatu ziran. Egverdiia. Batzokijan oturuntza edefa; ta, afaisaldian bafiro ba ezpatadantzia ta euzko-efomeri garbiia ta abaf egin ziran.

Egun andi ofetan, geure Euzkadi matagafija aintzaldu ta goralduten, danok be poz-pozik ibili gintzazan.

EUZKEL-IXENA. — Miren Edurne euzkel-ixen edefak ezafiiaz, lengo astian ugutzau eben Axuria'taf Tiburtzi abefkide zintzuaren alabatxu bat Zorijonak eta aufera.

GEXORIK.—Egunontan gexorik aurkitzen da, Azkolitzaga'taf Anastasi aberkidia. Osasuna opa.

JUAN-ETORIJAK.—Egubenea juan zan Olaeta'ra, gexorik aurkitzen dan bere anaya bat ikusten, Areitiaurtena'taf Lon gure txaunburu agufgafija.

—Larunbat afatsaldian egon ziran emen Iturbe'taf Ixidor eta Bafenetxea 'taf Polentzi Mañari'ko abade jaunak.

—Olaeta'ra osteratxu bat eginda, lengo egun baten etofi zan Areitioaurtena'taf Susane emakume zintzua.

¡IKASI MUTILAK!—Astelenian "Ortuzar" inguruko bitxabalian, zortzi mutil gastetxu, espatadantzia ikasten iñardubela ikusi genduzan. Apuf baten eurari begira peras egon gintzazan; eta alako polito dantzatuten ziran. Mutiltxu ofeik, eurek-euretara bakafian dantzan ain polito ikasteko, makal-makalak ezdira ofatik. "Bastefetxe,,'ko "Kukin" mutilaren irakatsijak baleukiez, zegozer baño geyago egingo leukie; ertzak eta mertzak atarako leukiez.

KEREXAK JATEN. — Mañaritafak Kerexak jaten juateko dei-egin dauskube. Aurten baña, goiz-kerexak eurijak gauzextu difuzala ta, mañariko jentia tamalez dago. Olan, goxetikuak galdu diran ezkero, ila-onen azkenerantza edo, azkenengo kerexak jaten fuango gara. "Begetarianunk" be ezkara.ta.

Efose.

ONDAROA

ABERI EGUNA.—Ospetasunik andijenagaz ospatu gendun ondafutafok egun andi ori. Aufegunez sua ixetu zan Tontofa-mendijan eta tronpeta-jotzinliak "Aguf jaunak" eta beste euzkel-eresi bat jo eban efi ganeko mendi batetik. Txistularijak kale-birea egin eben ainbat gastek jafatuten eutsela ta gero Batzokijan Abefijari eskintzea egin zan.

Jai-egunez meza bi esan ziran; gozeko zortziretan lenengua jaunartzeagaz eta amaiketan bigafena. Bigafen au abestua ixan zan. Abesiarijak Perosi'ren iru abotsetakua abestu eben. Ezpatadantzari ta poxpolifiak euren jantzijekaz jantzita entzun eben meza au. Aketi-orduan efiko txistulariak eresialdi ontzungafi bat 'o eben Batzokijan eta ordu berbertan txapeldun urten diran pelotarijei euren serijak banandu yakezan. Geroago erespatza aufetik zala eta geure efi ta alderdiko agintarijak buru zirala abeftzale gustijak zubi-zafera zuzendu ziran kale areri Arana-Goiri'taf Sabin'an ixena emoten dautsan afija agertuten. Ixen ori aspaldiz ipifii yakon afen geure zrerijuak kendu egin eben ta abeftzaliok ospetasunik nagusijenaz befipifii ixan gendun. Une onetan Arantzamendi'taf Simon. bigafen alkatiak itz egoki ta zuzenak zuzendu ebazan. Jai ori amatuta efi osua enparantzara zuzendu zan espatadantzari ta poxpolifien jaya ikusten. Jai ori gustiz atsegin ixan zanik ezin ukatu. Dantzariiak bixkor ta yayo agertu ziran ta txalo ugari entzun ebezan. Jafayan, eta gabeko bederatzijak arteraño efiko erespatzak dantzarako erestaldi arifiak jo ebazan. Egun ofetan, Abefi-Eguna zalako, euzkel-eresijak bafafik jo ebazan, dantza azkerako eresijak.

Abefi-domurako be esku zabal agertu dira efiko abeftzalerik geyenak. Efijan gosete andija egon afen gustijak emon ixan dabe zerbait, bakotxak al eban neufiz.

ZABALKUNDEAN. — Afasteruen aurkako batzafian aftu ziran erabagijak beteag berian ixentau ziran batzofdeko batzuk Asturias eta Galizi alderantz juan dira emen artutako erabagijak zabaldu ta eurekaz itunduten. Geure efilik Ufesti eta Meabe juan dira.

IRAKASKINTZEA. — Guretzeko lekaime edo monjak euren ikasteteko irakaskintzeari laga egin dautse ta euren ordez Guenaga'taf Miren jafi da ikastetxe ofetako irakasle beste lagun batzuekaz.

Liraln.

IBAÑIKA

ABERI-EGUNA.—Ofila'ren azkenengo egun biak, ogetamaf-ogetamaikaga-fenak, bene-benetan ixan doguz Abefi-Egunak. Egun ofetan egiz esan geinka abertzaletasuna agirian egon dala Ibafika'n.

Baltzeoa, bazteferatuta; euzkerea, geyenen ezpafietan; antxifiako oiura -ekanduak, berbiztuta; aleiiea, beste -beterik; Enefi'ari, Abefi'ari, bere bear-izanetarako diruzko laguntasuntxua eskifii; "euzkotaf guztien afiean bati bizirik eta gartsu fraun bear leuken anafasuna", efikide guztien afiean...: ori guzti ori ikusi dogu V Abefi-Egunez Ibafika'n.

Urte guztiko egunak zegatik es ete -dira Abefi-Egunak? Ofelakoak ba'litzaz, bai benetan zorionduko genduke-la geure Abefi gaxo laztana!

Gure egitaraua beste efietakoen antzekoa genduan. Baña jasokunik urtenak onexek ziran: Jaupeak aftu eban edertasuna ta Bilbao'taf Nekane Emakumien eta "Euzkera-Aldez" Batzofdeko lendari azkafa bainen jintzoak Batzokijan egin euskun (t)aldia. Ezkenkian Ibafika'n onelako emakumerik genduanik. Ez baña usterik izan erderaz egin euskula euzkera garbi ta odefez baño. Amaikatxu txalo irebasi etuzan Nekane trebeak!

Opelako jayak safiago egin bear gen dukez. Jantza ta jolas iiun ta zikifietatik gaztedia ufinduteko bide egokiagorik ez aurki!

JARDUNA.—I. txotxo, egun batzuk -bafu San Juan'ak yuagusak.

—Ezpa'iltzozak be guretzako bardin samar, San Juan'ak izan afen gure eskaratz ingurua ilun egongo dok-eta. Indabak jainda igaro beafko, gure atsoak etxok beste zer ipifiirik eukiko ta.

—Entzuk: Batzoki'ko emakumeari emoyok efeal bat, bai, ta eurak emongo yautsek len atsoari San Juanetarako bildots edefa. Eztok Anton Lopeola 'koaren soloan bildots bat ikusi?

—A edefetan be edefa dok, mutil.

—Axe yauk fretzako izentau-ta, ba! Efeal bategatik guraña okela!

Lapurika.